

Iraultza artifiziala

Euskaldunon Egunkaria, 1996-11-03: 3.

Iraultzek gehienbat herrien aldekoak izan behar dutela dirudi. Ez herri naturalen aurka. Ez da bidezko berez herri batek sortutakoak, hizkuntza, fedea, oinarriko erakundeak, dena, apetaz haustea. Orain Iparraldean alkate euskaldunek lortutako gehiengo batez departamendu bat eraikitzeke asmoa erakutsi dute. *Departamendua* betikoa dela dirudi Frantzian, Iparraldean ere. Iraultza frantsesak Euskal Herrian ere nahiko gaiztakeria egin eta gero, Iraultza odoltsuarekin eraiki zituzten departamenduak 1790ean. Honen orde z noizbehinka antzineko moduak: Bretagne eta abar aipa zituzten, baina probintziak departamenduetan zatitu zituzten, eta, jendez neurtuz, izenak mendi eta ibaietatik eta geografiatik aukeran hartu zituzten izendatuak izendatzeko. Ia ehun urte geroago, 1860an departamentu berriak sortu ziren Savoia eta Nizarekin. Base Rhin, Haute Rhin eta Moseille, gerraren ostean alemanekin galduak 1919an berrezarriak izan ziren. Beste batzuk, jendea aldatzearekin batera sortu ziren, eta XX. azkenean 100 bat berri, harrapatario! sortuak dira. Gure herriak badu hemen historia! kontatzeko. Egokiera hau ona da Basses Pyrenees, Pyrenees Atlantiques delakoena kasu.